



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO MAIATZAREN 21EAN  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Mertxe Aizpurua Arzallus.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2015/05/06KO EZOHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2015eko maiatzaren 6ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- USOA ZUMETA SANZ ANDREAK TXIKIERDIKO 6. POLIGONOKO 103. PARTZELAN ERAIKI DUEN ARTE-ESTUDIOARI LEHEN ERABILERA BAIMENA ETA IREKIERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.07/2009-0531

USOA ZUMETA SANZ andereak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Txikierdiko 6. poligonoko 103. partzelan eraiki duen arte-estudioaren (Txikierdi 22 B) lehen erabilera eta jardueraren irekiera baimena eskatzen du.

**AURREKARIAK**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko abenduaren 14an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: Txikierdiko 6. poligonoko 103. partzelan Arte-estudio eraikitzeko udal baimena ematea udal baimena ematea.

**LEHEN ERABILERA BAIMENA**

Obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera arte-estudioaren lehen erabilera baimena eskatu da.

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2015eko maiatzaren 5ean ondoko txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**



Usurbilgo Udala



**OBRA NAGUSIAK**  
**TXIKIERDI AUZOAN ARTE-ESTUDIOA ERAIKITZEKO OBREN AMAIERA**  
**DOKUMENTAZIOA ETA IKUSKARITZA**

---

ESKATZAILEA: Usoa Zumeta

ESKAERA: Txikierdi auzoan arte-estudioa eraikitzeke obren lehen erabilera.

KOKAPENA: Txikierdi auzoa, Usurbil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.07/2009-0531

**OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: 114.952,53EURO.**

---

### **1. AURREKARIAK**

- 2009eko abenduaren 23an Usoa Zumetak udal baimena eskatu zuen Txikierdi auzoan Arte Estudioa eraikitzeke. Proiektuaren hiru ale aurkeztu ziren.
- 2010eko maiatzaren 5ean O.O. Udal Arkitektoak txostena idatzi zion.
- 2010eko maiatzaren 11ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali zen oharra, jendaurreko erakustaldiaren berri argitaratze aldera. GAO 2011-05-13; hamabost laneguneko epea irekiz.
- 2010eko maiatzaren 28an partikular batek erreklamazioa jarri zuen.
- 2010eko ekainaren 23an Nekane Azarola Udal aholkulari juridikoak txostena idatzi zuen.
- 2010eko uztailaren 23an ARANZADI Zientzi Elkarteko idatzia aurkeztu zen, non egitasmoari babesa ematen zitzaion.
- 2010eko irailaren 7an Kultura, euskara eta gazteria sailetako Udal teknikariak txostena idatzi zuen.
- 2010eko urrian Udal Idazkariak txostena idatzi zuen.
- 2010eko abenduaren 14an Tokiko Gobernu Batzarrak Txikierdiko 6. Poligonoko 103 partzelan arte-estudioa eraikitzeke udal baimena ematea erabaki zuen.
- 2011eko martxoaren 2an Zuinketa Akta izenpetu zuten Obra Zuzendaritzak (Iñigo León) eta Udal Arkitektoak (Oier Otxoantesana).
- 2011eko ekainaren 15ean Oier Otxoantesana eta Ekhiñe Egiguren Udal teknikariek obren lekura bertaratzea egin zuten.
- 2011eko ekainaren 16an, Udal Arkitektoak txostena idatzi zuen eta bertan azaldutakoaren berri eman zien Oier Otxoantesana arkitektoari, Usoa Zumeta interesatuari, Iñigo Leon Obra Zuzendaritzari, Nekane Azarola udal teknikari juridikoari eta Usurbilgo Udaleko idazkariari.
- 2011ko uztailaren uztailaren 5ean ARAUDI s.l.-k txosten juridikoa eman zuen.
- 2011ko uztailaren 11ean udal teknikariak ikuskapena eta neurketak egin zituen eta haien inguruko txostena.
- 2011ko uztailaren 22an Usoa Zumetak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen.
- 2011ko uztailaren 29an dokumentazioa Foru Aldundira igorri zen, interes publikoa eskatuz. Ez da erantzunik jaso.
- 2011ko urriaren 6an udal idazkariak txostena idatzi zuen, non honakoa esaten zen: *“Aurreko guztiaren ondorioz eta izapide honi dagokionean 30/1992 Legearen 43. eta 67.4. ataletan xedatutakoaren baitan 2010eko abenduaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzordean hartutako akordio baliozkotzeko egoeran aurkitzen gara.”*



Usurbilgo Udala



- 2012ko urtarrilaren 9an Usoa Zumetak Exekuzio Proiektuaren Testu Bateratua aurkeztu zuen.
- 2012ko ekainaren 21ean Zuzendaritza Fakultatiboak Obra amaitutzat eman zuen.
- 2012ko abenduaren 19an Usoa Zumetak Obra Amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen Udalean.
- 2013ko apirilaren 12an udal teknikariak bertaratzea egin eta AURKAKO txostena idatzi zuen.
- 2013ko abenduaren 3an interesatuari jakinarazi zitzaizkion bete beharreko baldintzak, LAU HILABETEKO epea emanaz.
- 2013ko abenduaren 5ean interesatuak "Eraikinaren inguruko elementuaren definizioa eta itxitura lizentzia eskaera" dokumentazioa aurkeztu zuen; bide batez, oilotegia eta txakurrarentzat estalkiak eta lursailaren itxitura eskatuz.
- 2014ko martxoaren 20an interesatuak "Eraikinaren inguruko elementuaren definizioa eta itxitura lizentzia eskaera" dokumentazioa aurkeztu zuen.
- 2014ko apirilaren 4an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.
- 2014ko apirilaren 25ean udal arkitektoak eta alkateak bertaratzea egin zuten.
- 2014ko maiatzaren 5ean udal arkitektoak AURKAKO txostena egin zuen.
- 2015eko urtarrilaren 5ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2015eko otsailaren 12an udal arkitektoaren txostena dokumentazio osagarria eskatuz.
- 2015eko martxoaren 17an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2015eko apirilaren 7an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2015eko apirilaren 13an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2015eko apirilaren 20an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2015eko maiatzaren 5ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

## **2. TXOSTENA**

Usoa Zumeta andreak dokumentazio osagarria aurkeztu du Txiki-Erdi auzoan arte estudioa irekitzeko obren inguruan. Honako dokumentazioa aurkeztu da:

- 2015eko martxoaren 17an: eskaera orriarekin batera ibilbide irisgarriko arrapalaren plana aurkeztu da.
- 2015eko apirilaren 7an: obra amaierako ziurtagiria, obra amaierako likidazioa eta arrapalaren argazkia aurkeztu dira.
- 2015eko apirilaren 13an: dagokion elkargoak ikus-onetsitako obra amaierako ziurtagiria eta obra amaierako likidazioa aurkeztu dira.
- 2015eko apirilaren 20an: dagokion elkargoak ikus-onetsitako ortofotoa eta arte estudioaren inguruko elementuen plana aurkeztu dira.
- 2015eko maiatzaren 5ean: dagokion elkargoak ikus-onetsitako ibilbide irisgarriko arrapalaren plano aldatua aurkeztu da.

Orain aurkeztutako dokumentazioa eta espedientea aztertu ondoren, jarraitu beharreko hirigintza parametroen inguruko justifikazioa ontzat ematea



Usurbilgo Udala




proposatzen dut, eta horrekin batera lehen erabilerako baimen eskaerari ALDEKO erantzuna ematea.

Espedientea aztertu eta obren ikuskapena egin ondoren honakoa esan daiteke:

Udal arkitektoaren azken txostenean honakoa jasotzen zen, besteak beste:

- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: ...eraikinari dagokionez, esan beharra dago komunak 68/2000 Dekretuak ezarritako ezaugarri garrantzitsuenak betetzen dituela: ateak 0,90 m-ko zabalera du, kanpora irekitzen da, eta kabinan 1,50 m-ko diametroa duen espazio librea dago. Transferentzia errazteko barrak ere jarriak dira komunean. Eraikinaren sarrerako ate bikoitzaren orrien zabalerek, ordea, ez dute Dekretua betetzen, 0,90 m-koak izan ordez, 0,80 m-koak baitira. **ESANDAKOA BERRESTEN DA, sarrearako ate bikoitzak ez dute Dekretua betetzen, 0,90 m-koak izan ordez, 0,80 m-koak baitira.**
- EKT-REN BETETZEA: Aurreko atalean esandakoari jarraiki, kanpoko ibilbide irisgarriari dagokionez, arrapalak EKT-an (SUA 1eko 4. atalean) ezarritakoak bete beharko ditu.

Apirilaren 21ean egindako obren ikuskaritzan egindako arrapala martxoaren 17an, apirilaren 7an eta 20an aurkeztutako dokumentazioan jasotako baldintzetara ez zela egokitzen eta EKT-ren SUA 1eko 4. atala ez zela beteetzen ikusi zen. Horregatik, arrapala egokitzeko eskatu zen. Ondoren, Maiatzaren 5ean jasotako dokumentazioaren ostean, bertaratzea egin da eta arrapala aurkeztutako planoarekin bat datorrela eta EKTko baldintzak betetzen dituela ziurtatu da. **BETETZEN DU.**



- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: ...eraikinari dagokionez, esan beharra dago komunak 68/2000 Dekretuak



Usurbilgo Udala



ezarritako ezaugarri garrantzitsuenak betetzen dituela: ateak 0,90 m-ko zabalera du, kanpora irekitzen da, eta kabinan 1,50 m-ko diametroa duen espazio librea dago. Transferentzia errazteko barrak ere jarriak dira komunean. Eraikinaren sarrerako ate bikoitzaren orrien zabalerek, ordea, ez dute Dekretua betetzen, 0,90 m-koak izan ordez, 0,80 m-koak baitira. **ESANDAKOA BERRESTEN DA, sarrearako ate bikoitzak ez dute Dekretua betetzen, 0,90 m-koak izan ordez, 0,80 m-koak baitira.**

- **OBRA AMAIERA DOKUMENTAZIOA:** Honakoa aurkeztu beharko da:
  - o Obra amaierako plano errealak eta eguneratuak, teknikari gaituak izenpetuak eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsiak.
  - o Obra amaierako likidazioa egin diren egokitzapen guztiekin, teknikari gaituak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia.

#### **AURKEZTU DIRA.**

- **EMANDAKO BAIMENAREKIKO ALDAKETAK:** Edonola ere, emandako obra baimenarekiko aldaketak obra amaierako dokumentazioan jaso beharko dira eta indarrean den araudia bete beharko dute.

Nahiz eta aurkeztutako planoak oso eskala txikian dauden bertaratzean ikusi da egindako aldaketak jasota daudela.

#### **AURKEZTU DIRA.**

### **3. ONDORIOA**

**Goian aipatutakoari jarraiki, lehen erabilera baimena emateko oro har eskatutako baldintzak eta araudia betetzen direla esan daiteke, sarrerako ate bikoitzaren zabalera izan ezik (0,90 m-koak izan ordez, 0,80 m-koak baitira).**

Guzti honen berri ematen zaio Udalari dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2015eko maiatzaren 5ean  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Jone Miner Aginaga

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** USOA ZUMETA SANZ andereak eskatu bezala, Txikiardiko 6. poligonoko 103. partzelan eraiki duen arte-estudioari (Txikiardi 22 B) lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** USOA ZUMETA SANZ andereak Txikiardiko 6. poligonoko 103. partzelan eraikitako arte-estudioari irekiera baimena ematea. Ondoko neurri zuzentzaileak beteko dira:



Usurbilgo Udala



1. Arte-estudio publikoarentzat irekitzen denena sarrera nagusiko ateko bi orriak zabalik egon beharko dute ezinbestean.
2. Erakunde tekniko eskudunek emandako aplikazio orokorreko arau espezifikokoak errespetatzea.
3. Establezimendua goian adierazitako jarduerarako bakarrik erabiltzea; ezingo da beste jarduera baterako erabili.
4. Ez dira gainditu behar gaueko 22:00ak arte 40 dB(A) eta goizeko 08:00ak arte 30 dB(A), hots-maila jarraian minutu batean Leq. baliokideetan neurtuta, ezta puntako unetan 45 dB(A) eta 35 dB(A) ere, lurzoru erresidentzian kokatutako etxebizitza hurbilenetan.
5. Komunetako isurketa likidoak bakarrik onartuko dira eta haiek indarrean dauden udal-ordenantzak bete behar dituzte edo, hala badagokio, jabari publiko hidraulikoari buruzko araudian eta horrekin zerikusia duten arauetan ezarritakoa.
6. Hiri hondakin solidoak eta asimilagarriak Hiri Hondakinen Kudeaketari buruzko udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera atera beharko dira.
7. Larrialdietarako argietarako ekipo autonomoak jarri behar dira koadro elektrikoaren ondoan eta jendea ibiltzen den lekuetako irteeretan.
8. Lokaletik ateratzeko bidea seinaleztatu eta argitu egin behar da.
9. 21A-113B eraginkortasuna duten hautsezko su-itxalgailu bana jartzea proposatzen da solairuko.
10. Eraikinetako suteen aurkako babesak jarri direla adierazten duen ziurtagiriaren kopia aurkeztu behar da.
11. Instalazio elektrikoaren orriaren kopia ere aurkeztu behar da.
12. Proiektuan adierazita dauden zehaztapenak eta neurri zuzentzaileak nahitaez bete behar dira, goian aipatutako jarraibideekin bat ez datozenean izan ezik.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau interesatuei, ur zerbitzuaren ordainketa-eroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

**3.- AKABA, S.A. ENPRESAK HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-104 (ATALLU) EREMUAN, ATALLU KALEA 14-16AN ERAIKI DUEN INDUSTRI PABILOIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2007-0098



Usurbilgo Udala



AKABA, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14-16an eraikitako industri pabiloiaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

### AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2005eko uztailaren 12an eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14-16an industri pabiloi bat eraikitzeko udal baimena ematea.

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

AKABA, S.A. enpresak, 2008ko azaroaren 14an, 4638 sarrera zenbakia daraman idatziarekin, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera pabiloi berriaren lehen erabilera baimena eskatu zuen.

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, espedientean jasotako dokumentazioa aztertu ostean, 2015eko apirilaren 28an emandako txostenean, txosten juridikoa eskatu zuen: «*Akaba enpresak atallu industrialdean duen pabiloiaren lehen erabilera baimena emateko, espedientearen izapidetza eta aurrekariak ikusita, une honetan baimena emateko eskatu behar den dokumentazioa eta gauzatutako pabiloiaren altuera gehikuntza dela eta txosten juridikoa eskatzen da. lehen erabilera emateko eskatu behar den dokumentazioa eta gauzatutako pabiloiaren altuera gehikuntza dela eta txosten juridikoa eskatu zuen.*»

Udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L. taldeko Nekane Azarola Martínez andereak, espedienteko dokumentazio aztertu ostean, ondoko txostena eman du hitzez hitz:

### **AKABA ENPRESAK ATALLU INDUSTRIALDEAN DUEN PABILIOIAREN INGURUAN UDAL ARKITEKTOAK ESKATUTAKO TXOSTEN JURIDIKOA**

#### **I.- SARRERA**

2015eko apirilaren 28an, udal arkitektoak Akaba enpresak Atallu industrialdean duen pabiloiaren lehen erabilera izapidetzeko aurkeztu beharreko dokumentazioaren eta gauzatutako pabiloiaren altuera gehikuntzaren inguruko txosten juridikoa eskatu du.

Beraz, txosten honen bidez, udal arkitektoak eskatutakoari erantzutea ekiten zaio.

#### **II.- AURREKARIAK**

1.- 2005ko ekainaren lehen egunetik aurrera AKABA enpresak Atallu Industrialdean pabiloia eraikitzeko obra baimena eskatu zuen, Oinarrizko Proiektua aurkeztearekin batera.

2.- 2005eko uztailaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak baimena eman zuen baldintzekin.



Usurbilgo Udala



3.- 2008ko azaroaren 8an, interesatuak lehen erabilera baimena eskatu zuen, horretarako obra amaierako dokumentazioa aurkeztuaz.

Baina, udal arkitektoaren 2015eko apirilaren 28ko txostenean adierazi moduan, udalak ez zuen espedientea bideratu.

4.- 2014ko otsailean AKABA enpresak Atallu Industrialdean duen lursailaren bereizketa eskatu zuenean, udal arkitekto teknikoak enpresak lehen erabilpen baimena ez zuela ohartu eta bertaratzea egin ondoren, lehen erabilera baimenari aurkako txostena idatzi zuen, baimena trarnitatzeko dokumentazio gehigarria eskatzeko proposatuz.

5.- Akaba enpresak, eskatutako hainbat agiri aurkeztu zituen, baina udal arkitektoaren txostenean adierazi moduan, eskatutako honako hau ez du aurkeztu: egikariu diren obrak obra baimena jaso zuen oinarritzko proiektuarekiko aldaketak izan badituzte, indarrean den araudira egokitzen direla justifikatzen duen dokumentazio tekniko.

6.- 2014ko martxoaren 10ean udal aparejadoreak sinatutako zuinketa aktan, hegoekialdeko bolumenaren altuera 21,20 metrotik 22,35era gehitzen da(%5,4ko gehikuntza) eta gainontzeko pabilioiaren altuera 9 metrotik 9,72 metrora igo dela (%8ko gehikuntza) ikusi da.

### III.- AZTERKETA JURIDIKOA

Kasu zehatz honetan aztertzeaz bi gai ditugu, batetik, lehen erabilera baimena, eta bestetik, pabilioiaren altuera ingurukoa.

#### a.- Lehen erabilera baimena.

Hirigintzako lizentziak Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 legean xedatzen dira, zehazki 207 eta hurrengo artikuluetan.

207.1. artikulua arabera, besteak beste, hirigintza lizentzia behar dute, obren edo obra-zatien lehenengo erabilpena.

Hirigintza lizentziak emateko prozedura orokorra 210. artikuluan arautzen da, kasu honetan aplikagarria izanik 6. Eta 7. atalak:

**"6.– Lizentzia eman egin dela iritziko zaio, baldin eta eskaera aurkeztu ondoren ebazteko dagoen gehienezko epea inolako ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada.** Lizentzia emateko presuntziozko egintza horren egiaztagiria eskatu ahal izango da hurrengo 20 egunen barruan, froga modura erabili ahal izateko.

**7.– Aplikatu beharreko araudiak ebazpena jakinarazteko epea zenbatekoa den berariaz jasotzen ez badu berariazko ebazpen horren jakinarazpena egiteko, gehienez, hiru hilabete emango dira, lizentziarako eskaera aurkezten denetik kontaktzen hasita –baldin eta eskaera hori zuzentzeko edo hobetzeko errekerituz udalak jakinarazpenik egin ez badu.**





Usurbilgo Udala



Kasu zehatz honetan, Akaba enpresak 2008. urtean eskatu zuen lehen erabilpena, eta udalak 2014. urtea arte ez zion dokumentazio gehigarria eskatu, horietako batzuk 2014ko martxoan aurkeztuz.

Gauza da, 2014an eskatutako dokumentaziotik, dirudienez bat bakarrik ez duela aurkeztu, hain zuzen, *egikaritu diren obrak obra baimena jaso zuen oinarrizko proiektuarekiko aldaketak izan badituzte, indarrean den araudira egokitzen direla justifikatzen duen dokumentazio teknikoa*. Baina urtebete pasa ondoren, oraindik ez zaio erreklamatu.

Beraz, aipatu 210 artikulua 6. eta 7. atalen baitan, administrazio isiltasunen bidez lehen erabilera baimena emanda dagoela baieztatu daiteke. Ondorioz, une honetan ez dago babes juridikorik agri gehigarriak eskatzeko.

#### **b.- Pabilioiaren altuera.**

Aipatu bezala, 2/2006 Legearen 208 artikulua arabera, lizentziak obren oinarrizko proiektuan oinarrituta emango dira, aplikatzekoak diren legeriaren eta plangintzaren arabera ezarri beharreko bestelako baldintza guztiak ezarriz, eta gerora egikaritze-proiektua aurkeztera baldintzaturik.

Kasu honetan, udal arkitektoaren txostenean adierazi moduan, obra ez dator bat oinarrizko proiektuarekin. Beraz, 2/2006 legearen 219 artikulua arabera, ezkutuko jarduketa baten aurrean gaude, 225 artikulua arau-hauste larritzat sailkatzen duena.

Baina 229 artikulua arau-hauste mota hauek **lau urteetara** indargabetzen direla adierazten du, eta Akaba enpresak obra amaierako dokumentazioa 2008ko azaroan aurkeztu zuen, hau da, orain dela 6 urte baino gehiago obra bukatuta zegoela eta, udalak horren berri bazuen. Beraz, arau-hausteagatik ezin da espediente zigortzaile bat hasi.

Hori bai, horrek ez du esan nahi baimenik gabeko obrak ez dituenik legalizatu behar. Zentzu honetan, 2/2006 Legearen 221 artikulua udalak ezkutuko jarduketa bat dagoela jakitean, baldin eta ekintza edo jarduketa printzipioz legeztagarria bada, legeztatze eskaera aurkez dezaten eskatuko dela jasotzen du.

Kasu zehatz honetan, udal arkitektoaren esanetan, Plan Partzialaren arabera, pabiloiak 9 metro baino altura gehiago eduki dezake jarduera bideratzeko. Hau da, justifikatuz gero baimentzerik dago.

Beraz, udal arkitektoaren esanetan, obra legeztatzerik dago, eta AKABA enpresari legeztatze eskatu beharko litzaioke. Baina Akaba enpresak legalizazioa eskatuko ez balu, aipatu 221 artikulua arabera, udalak eraikineko obrak eransteko aukera duen arren, kasu honetan obra amaitu zenetik 4 urte baino gehiago pasa direnez, 224.4 artikulua xedatutakoa jarraiki ezin du behartu obra eraistera, azken artikulua honek zehazki honela baitio:

*4.- Obrak, lanak edo instalazioak erabat amaitu direnetik, edo kanpo-itxurak horiek egin direla adierazten duenetik, lau urte igaro ondoren,*



Usurbilgo Udala



**administrazioak ezingo d etxe, eraikin edo instalazioak eraisteko agindu. Etxe, eraikin edo, instalazio horiek, halere antolamenduz kan o dauden eraikin eta instalazioen araubideari lotuta geldituko dira, eta eraberritze, handitze edo finkatzeren bat egin behar den guztietan, legezatzeko proiektu bat onartzea errekerituko da — legezatzeta posible bada behintzat—. Proiektu horrek, betiere, hirigintzako zerbitzuetan, eremu publikoen zuzkiduran edo antzekoetan eragindako kaltea konpontzeko —edo besterik ez bada, kalte hori gutxitzeko— beharrezkoak diren neurriak jasoko ditu. Administrazioak ofizioz onartu ahal izango ditu proiektu horiek.**

Hori bai, horrek ez du esan nahi, eraisketa agintzeko epea bukatu delako, obrak legezatzeta gelditu direnik, hirigintza antolamenduaren kontrakoak baitira. Beraz, 223 artikulua xedatutakoaren arabera hirigintzako plangintza aldatu edo berrikusi arte ezingo da legezatu. Bitartean, 224.4 artikulua adierazten duen moduan, antolamenduz kanpo dauden eraikinen araubideari lotuta geldituko da.

Aipatutako guztiagatik, honako akordio hau hartzea PROPOSATZEN da:

**Lehena.-** Lurzoruaren eta Hirigintzaren 210 artikuluen 6. eta 7. atalen baitan, Akaba enpresari administrazio isiltasunen bidez lehen erabilera baimena eman zaiola baieztatu daiteke. Ondorioz, une honetan ez dago babes juridikorik agiri gehigarriak eskatzeko.

**Bigarrena.-** AKABA enpresako arduradunei jakinaraztea, obra ez datorrela bat baimendutakoarekin, beraz, hilabeteko epean obra legezatu egin behar dute, dagozkion agiriak aurkeztuz.

**Hirugarrena.-** AKABA enpresari ohartaraztea eskatutako ez badu betetzen, baimenik gabe egindakoa, antolamenduz kanpo geldituko dela.

Donostian, 2015eko maiatzaren 4an

Izpta. Nekane Azarola Martinez  
ARAUDI S.L.P.

Hau ikusirik, udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, 2015eko maiatzaren 6an ondoko txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA NAGUSIAK**  
**AKABA ENPRESAK ATALLU INDUSTRIALDEAN DUEN PABILOIAREN**  
**LEHEN ERABILERA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Atallu Industrialdea, A-104 Eremua, Usurbil  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2005-0200  
**OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: 2.390.112,95 EURO**

---

**1.- AURREKARIAK**



Usurbilgo Udala



- 2005ko ekainaren 1ean AKABA enpresak Atallu Industrialdean pabiloia eraikitze obra baimena eskatu zuen, Oinarrizko Proiektua aurkeztearekin batera.
- 2005ko ekainaren 27an udal arkitektoak ALDEKO txostena egin zuen.
- 2005eko uztailaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak baimena eman zuen baldintzekin.
- 2005eko azaroaren 8an interesatuak Exekuzio Proiektua aurkeztu zuen, ingeniariak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia (COIIG 2005-11-07).
- 2008ko azaroaren 8an interesatuak Obra Amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen Lehen Erabilera Baimena eskatuz.
- 2014ko otsailaren 14an AKABA enpresak Atallu Industrialdean duen pabiloian 2000 m2 bereizteko baimena eskatu zuen, 2014ko otsailaren 20an bereizketa azalera 3000 m2-koa izan dadin eskatu zuen (HZ.12/2014-0040). Horren harira, udal arkitektoak AKABA enpresaren pabiloia egun lehen erabilera baimenik eta irekiera baimenik ez duela ikusi zuen.
- 2014ko otsailaren 24an udal arkitektoak AURKAKO txostena egin zuen, gauzak zuzentzeko hilabeteko epea amana.
- 2015eko martxoaren 7an Rosario Marijuan arkitektoaren txostena eta Jose Mari Dorransoro ingeniaria eta Eugenio Urdambide arkitektoaren txostena.
- Kokapen planoak, altzaerak eta ebaketak eta oin guztien oinplantak ere aurkeztu dituzte.
- 2014ko martxoaren 10ean eraikinaren zuinketa akta izenpetu zuten udal aparejadoreak, sustatazaileak eta obra zuzendariak.
- 2014ko martxoaren 10ean Nekane Azarola Araudi S.L.P.-ko aholkulari juridikoaren txostena.
- 2014ko maiatzaren 7an interesatuak lehen erabilera baimena eta jarduera irekiera baimena lortzeko 6 hilabeteko epe-luzapena eskatu du.
- 2015eko martxoaren 17an suteen aurkako babeserako neurrien instalazioa abian jar daitekeela egiaztatze akta aurkeztu du interesatuak, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailaren zigiluarekin.
- 2015eko apirilaren 28an udal arkitektoaren txostena.
- 2015eko maiatzaren 4an Nekane Azarola Araudi S.L.P.-ko aholkulari juridikoaren txostena.

#### Erlazionatutako espedienteak:

- HZ.07/2005-0199: AKABA pabiloian altzariak egiteko jarduera ezartzeko jarduera proiektua.
- HZ.07/2010-0361: AKABA pabiloian mahai-gainekoen amaierako sekzioa ezartzeko jarduera proiektua.
- HZ.12/2014-0040: AKABA enpresak Atallun duen pabiloian 3000 m2 bereizteko udal baimena.

## **2.- TXOSTENA**

AKABA S.A. enpresak Lehen erabilera baimen eskaerari eransteko dokumentazio osagarria aurkeztu zuen. Behean izenpetzen duen teknikariak espedienteaz aztertu ondoren 2015eko apirilaren 28an idatzitako txostenean gai batzuek argitze aldera txosten juridikoa eskatu zuen. Zehatzago esateko honakoa argitzeko eskatu zen: *“Akaba enpresak atallu industrialdean duen pabiloian lehen erabilera baimena emateko, espedientearen izapidetza eta aurrekariak ikusita, une honetan baimena emateko eskatu behar den dokumentazioa eta gauzatutako pabiloian altuera gehikuntza dela eta txosten juridikoa eskatzen da.”*

Hala, txosten juridikoa aztertu eta espedienteaz berrikusi ostean honakoa esan daiteke:



Usurbilgo Udala



**LEHEN ERABILERA BAIMENA:** Nekane Azarolak idatzitako txosten juridikoan honakoa jasotzen da: *“Lurzoruaren eta Hirigintzaren 210 artikulua 6. eta 7. atalen baitan, Akaba enpresari administrazio isiltasunen bidez lehen erabilera baimena eman zaiola baieztatu daiteke. Ondorioz, une honetan ez dago babes juridikorik agiri gehigarriak eskatzeko.”*

#### **OBREN LEGEZTATZEA:**

**1-ERAIKINAREN OKUPAZIOA ETA ALTUERA:** Eraikinak baimendutako obrarekiko aldaketak dituela ikusi da egikaritutako eraikinaren zuinketa aktako planoetan. Oro har egikaritutakoak baimena emandako proiektuko neurriak betetzen dituela esan daiteke oinplantan, gehikuntzak oso txikiak baitira (ez dira %2ra iristen); altuerei dagokienez aldiz, gehikuntza esanguratsuagoa da; hegoekialdeko bolumenaren altuera 21,20 m-tik 22,35era gehitzen da, sotoko lurretik neurtuta (%5,4ko gehikuntza) eta gainontzeko pabiloiaren altuera 9,00m-tik 9,72m-ra (%8ko gehikuntza). Indarrean dagoen Atallu industrialdeko Plan Partzialak honakoa dio eraikuntzaren baldintzei buruzko gehienezko altuera atalean, 14.2 artikuluan: *“La altura máxima de la edificación a partir de la rasante de referencia será de 9m. Tan sólo se permitirá sobrepasar esta altura en aquellos elementos industriales o instalaciones, imprescindibles para el desarrollo de la actividad que precisen mayor altura, quedando a criterio del Ayuntamiento su permisibilidad.”* **Beraz, altuera gehikuntza hau onargarria izateko bere derrigorrezko beharra justifikatu beharko litzateke.** Honen harira, txosten juridikoan honakoa dierazten da, besteak beste: *“AKABA enpresako arduradunei jakinaraztea obra ez datorrela bat baimendutakoarekin, beraz, hilabeteko epean obra legeztatu egin behar dute, dagozkion agiriak aurkeztuz”.*

**2-ERAIKINAREN ERAIKIGARRITASUNA:** Baimena jaso zuen proiektuko txostenean jasotzen denaren arabera behe solairuan 4.000m<sup>2</sup> eta goikoan 2.000m<sup>2</sup> dituen eraikina proposatzen da (planoetan eraikigarritasuna handiagoa dela dirudien arren). Udal baimenean, arkitektoaren aldeko txostenean, aipatutako 4.000m<sup>2</sup> eta 2.000m<sup>2</sup>-ko azalera berresten dira. Sotoaren inguruan, 2014ko martxoaren 10ean Nekane Azarola Araudi S.L.P.-ko aholkulari juridikoak bere txostenean jasotzen duenaren arabera *“2005ean obra baimena eman zenean, sotoan eraiktako azalera eraikigarritasun ondorioetarako ez konputagarri bezala hartu zen”.* Beraz, emandako udal baimenarekin behe solairuan 4.000 m<sup>2</sup> eta solairuarte 2.000 m<sup>2</sup> dituen eraikin bat baimendu zen (eta baita konputatzen ez duen soto bat ere). Obra amaieran aurkeztutako planoen arabera ordea, solairuartereko eraikigarritasuna 2.000 m<sup>2</sup> baino handiagoa dela dirudi. Hala ere, eraikigarritasuna ez da zehazten ez txostenean ezta planoetan ere.

Indarrean dagoen Atallu industrialdeko Plan Partzialak honakoa dio eraikuntzaren baldintzei buruzko “eraikigarritasuna” atalean, 14.3 artikuluan: *“El coeficiente de edificabilidad neto sobre la parcela industrial será de 1,50m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>. En el caso de ocupación de la parcela al 100% se permitirá una entreplanta del 50% de su superficie, pudiendo aumentar la entreplanta siempre y cuando se reduzca la ocupación, sin sobrepasar nunca el 1,5m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> de edificabilidad”.*



Usurbilgo Udala



Akaba lantegiaren jatorrizko partzela 8.000m<sup>2</sup>-koa zen eraikitzeko udal baimena jaso zuenean. Beraz, guztira 12.000m<sup>2</sup>ko eraikigarritasuna zuen (8.000m<sup>2</sup> behe solairuan eta 4.000m<sup>2</sup> solairuarte edo okupazioa gutxituz gero solairuarte handiagoa egiteko aukerarekin baina gehienez guztira 12.000m<sup>2</sup> eraiki izateko baldintzapean). Baina 2014ko martxoaren 12ko 2014/0225 dekretuaren bidez partzela horrek bitan bereizteko udal baimen jaso zuen; bata, 5.000m<sup>2</sup>koa eta bestea, 3.000m<sup>2</sup>koa. Hortaz egungo eraikinaren 5.000 m<sup>2</sup>ko partzelaren eraikigarritasuna guztira 7.500m<sup>2</sup>koa da gehienez.

**Beraz, baimena jaso zuen proiektuarekiko eraikigarritasun handitze bat egon dela dirudenez, eta eraikigarritasun handitze hori legeztagarria izan daitekeela ikusirik, dagokion legeztapen proiektua aurkeztu beharko da. Proiektu honen helburua gauzatutako eraikigarritasun handitze posible hori zehaztea eta legeztatzea izango da.**

### 3.- ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, honakoa esan daiteke: batetik, 2015eko maiatzaren 4ko udal aholkulari juridikoaren txostenaren arabera Akaba enpresari administrazio isiltasunaren bidez **lehen erabilera baimena eman zaiola** baieztatu daitekeela; bestetik, udal baimena jasotako obrek zenbait aldaketa jaso dituztela eta hauek legeztatu egin beharko direla. Hala, eraikinaren altuera gehikuntza onargarria izateko bere derrigorrezko beharra justifikatu beharko da, batetik; eta baimena jasotako proiektuarekiko eraikigarritasun handitzea zehaztu eta justifikatu egin beharko da, bestetik. **Beraz, dagokion legeztapen proiektua aurkeztu beharko da HILABETEKO epean.** Nolanahi ere, udal baimena jaso zuen proiektuarekiko beste aldaketaren bat egonez gero hau ere legeztapen proiektuan jaso beharko da.

Edozein modutan, indarrean dagoen araudia bete beharko da.

Hau da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Oharra: Txosten hau eraikitzeko udal baimena jaso zuen eraikinaren lehen erabilera baimen eskaerara bakarrik mugatzen da. Erlazionatutako beste espedienteek dagokien izapidetza jarraitu beharko dute.

Usurbilen, 2015eko maiatzaren 6an  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Jone Miner Aginaga

Eskaria kontutan hartuz eta udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** AKABA, S.A. enpresak eskatu bezala, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-104 (Atallu) Eremuan, Atallu kalea 14-16an eraikitako industri pabiloiari lehen erabilera baimena ematea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 12an baimendutako eraikinari dagokionean.



Usurbilgo Udala



**BIGARRENA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 12an baimendutako obrek, burututakoarekin bat ez datozenez, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita hilabeteko epea ematea AKABA, S.A. enpresari, baimenik gabe burututako obrak legezatzeko eskaera aurkezteko dagozkion agiriekin batera.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau interesatuei eta Kontuhartzaileari ematea.

#### **4.- UDARREGI IKASTOLA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO SGED-2 (AGERIALDE) SISTEMA OROKORREAN, AGERIALDE ERAIKINARI ERANTSITA ERAIKI DUEN ERAIKIN BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2012-0367

UDARREGI IKASTOLA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean, Agerialde eraikinari erantsita eraiki duen Udarregi Ikastolaren Haur Hezkuntzako eraikin berriaren (Alperroburu kalea 5A) lehen erabilera baimena eskatu du.

#### AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2013ko otsailaren 27ab eguniko bilkuran, zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean, Agerialde eraikinari erantsita Udarregi Ikastolaren Haur Hezkuntzako eraikin berria eraikitzeke udal baimena ematea.

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraikin berriaren lehen erabilera baimena eskatu da.

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, aurkeztutako dokumentazio aztertu ostean, 2014ko abuztuaren 29an ondoko txostena eman du:

ESKAERA: Hezkuntzako eraikin berria Agerialde Erantsia amaiera ziurtagiriari Zerbitzu eta Mantenua Sailaren txostena. ESKATZAILEA: Udal Arkitektoa (Hirigintza saila) KOKAPENA: SGED-2, AGERIALDE PATIOA ESP. ZENB: HZ.04/2012-0367
--

#### AURREKARIAK:

2012ko uztailaren 27an Agerialde Eraikinari eraikinaren exekuzio proiektua aurkeztu dute dagokion elkargoak ikus-onetsia. Proiektua Ignacio Quemada arkitektoak idatzi du.

2013ko otsailaren 26an txostena idatzi zen, non proiektuari buruzko Zerbitzu eta Mantenua sailaren proposamenak jasotzen ziren.



Usurbilgo Udala



2013ko otsailaren 27ko Usurbilgo Tokiko Gobernu batzarrean "Ageri Alderi erantzita haur hezkuntzarako eraikinaren anplazioari baimena eman zen, eta beste baldintzen artean jaso zen, Zerbitzuetako txostenean jasotakoak bete egin behar zela.

2013ko maiatzaren 3an aurkeztu zen 1622 sarrera zenbakiarekin:

Asunto:	Respuesta al informe realizado por el Ayuntamiento de Usurbil en relación al proyecto de "NUEVO EDIFICIO DE EDUCACIÓN INFANTIL ANEXO AL EDIFICIO AGERIALDE EN LA SGED-2 DE LAS NNSS PARCELA AGERIALDE"	1704 VISADO BISA
---------	--	---------------------

2013ko ekainaren 13an txostena idatzi zen, Zerbitzuak eta Mantenua sailak proposatutakoak jaso zirela adieraziz.

#### **TXOSTENA:**

2014ko ekainaren 4an amaiera ziurtagiria aurkeztu du Ignacio Quemada obra zuzendariak.

Zerbitzuak eta Mantenua sailak ikuskatu ditu herriko zerbitzuei egindako lotuneak, hots, saneamendu sarera, euri uren sarera eta ur edangarriaren sarera eta ontzat ematen dira egindako lotuneak. Barneko argiterian eta mekanismo elektrikoan eskatutakoak, obra berrian jarri dira eta ontzat ematen dira.

Zerbitzuak eta mantenua sailari dagozkien goian aipatutako atalei aldeko txostena ematen da.

2014ko abuztuaren 29an  
Zerbitzu eta Mantenu Saileko burua / Udal aparejadorea  
Felix Aizpurua Arzallus

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2015eko apirilaren 30ean ondoko txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA NAGUSIAK**  
**AAS-KO SGED-2-AGERIALDEKO LURSAILEAN AGERIALDE ERAIKINARI**  
**ERANTSITA HAUR HEZKUNTZAKO ERAIKIN BERRIA ERAIKITZEKO**  
**OBRA AMAIERAREN DOKUMENTAZIO GEHIGARRIARI TXOSTENA**

KOKAPENA: SGED-2 AGERIALDE, Usurbil

ESKAERA DATA: 2014ko irailaren 9a, 2015eko martxoaren 30a eta apirilaren 23a.



Usurbilgo Udala



ESKATZAILEA: UDARREGI IKASTOLA  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2012-0367  
**OBRA AMAIERAKO AURREKONTUA: 1.450.185,7 euroakoa (PEM)**

---

## **1. AURREKARIAK**

- 2014ko ekainaren 4an interesatuak lehen erabilera baimena eskatu du
- 2014ko uztailaren 30ean udal arkitektoaren txostena
- 2014ko abuztuaren 1ean interesatuak dokumentazio gehigarria aukeztu du.
- 2014ko abuztuaren 5ea ingurumen teknikariak ALDEKO txosten baldintzatua idatzi dio.
- 2014ko abuztuaren 29an udal aparejadoreak ALDEKO txostena eman du.
- 2014ko irailaren 1ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2014ko irailaren 4an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2014ko irailaren 5ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2014ko irailaren 8an udal arkitektoaren txostena dokumentazio osagarria eskatuz.
- 2014ko irailaren 9an, 2015eko martxoaren 30ean eta apirilaren 23an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du

## **2. TXOSTENA**

Udarregi Ikastolaren izenean hainbat dokumentazio aurkeztu da Usurbilgo Udalean, Udarregi ikastolaren haur hezkuntzako eraikin berriaren lehen erabilera baimena jasotzeko. Aurkeztu dokumentazioa honakoa da:

- 2014ko irailaren 9an: Igogailua abiaraztearen jakinarazpena.
- 2015eko martxoaren 30ean: "línea de vida" delakoak ezarri izanaren emate-agiriak.
- 2015eko apirilaren 23an: Instalazio termikoa abiarazteko jakinarazpena.

Aurkeztu den dokumentazioa aztertu, bertaratzea egin eta udal arkitektoak 2014ko irailaren 8an izenpetutako txostenean jasotako baldintzak aintzat hartuta, honakoa esan daiteke:

- FALTA ZEN DOKUMENTAZIOA: Igogailuaren abiarazte akta eta instalazio termikoa abiarazteko jakinarazpena (klimatizazio/aireztapen instalakuntzari, berogailuari eta OUBri dagokiena) eskatu ziren azken txostenean. **AURKEZTU DIRA**
- OBRAN DEFIZIENTZIAK: Obrak amaituta egon arren, uda haseran jada bazeuden hainbat arazo, aurreko txostenetan aipatzen zirenak, **ORAINDIK GUZTIZ KONPONDU GABE DAUDE**. Besteak beste, hauek dira defizientzia nagusiak:
  - o Patio alderako altxaeran hainbat harlausa apurtuta daude. **Konpondu egin behar dira.**





Usurbilgo Udala



- Klimatizazio makineriaren kolpe eta kalteak ez daude guztiz konponduta. **Konpondu egin behar dira.**

Ikastolako arduradunek diotenez, ikastolako ordutegitik kanpo, norbaitek eraikinaren estalkira igo eta harlausa horiek puskatu eta klimatizazio makineria kolpatu egin omen ditu. Beraz, bertaratzean ikastolako eta udaleko arduradunekin hitz egindakoaren arabera, eraikinaren estalkira igotzea ekiditeko neurriak hartzea erabaki da. Honen harira dagoeneko sensore bidezko alarma sistema bat jarria dago klimatizazioko makineriara igotzea eragozteko.

Hala ere, aipatu behar da harlausak nahiko hauskorak diruditelako, askok jartzerakoan jasotako kolpe eta harrastoak baitituzte.

- LORAZAINTZA/INGURUMENA ETA ZERBITZUEI DAGOZKIENAK: Udal aparejadore eta ingurumen teknikariaren txostenetara bideratzen da .
- GOI ESTALKIETAN "LINEAS DE VIDA" DIRELAKOAK: Eraikuntza berriaren goi estalkietan "lineas de vida" segurtasun neurriak ezartzea falta zela adierazi zen. Jarritako "línea de vida" horien emate-agiriak aurkeztu dira eta bertaratzean **JARRITA DAUDELA IKUSI DA.**
- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Edonola, Irisgarritasun araudia bete beharko du.

### **3. ONDORIOA**

**Goian aipatutakoari jarraiki lehen erabilera baimena emateko baldintzak oro har betetzen direla esan daiteke; baina obrako zenbait defizientiaren konponketa bukatu gabe dagoenez komenigarria litzateke lehen bait lehen defizientzia horiek dagokionak konpontzea.** Izan ere, udalak eraikinaren mantenuaz arduratu beharko balu defizientzia horiek eraikina erabileran jarri aurrekoak direla ikusi dela kontutan hartu beharko da. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko apirilaren 30ean  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Jone Miner Aginaga



Usurbilgo Udala



Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2015eko maiatzaren 7an ondoko txostena eman du:

IT2015\_05\_07

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA NAGUSIAK**  
**AAS-KO SGED-2-AGERIALDEKO LURSAILEAN AGERIALDE ERAIKINARI**  
**ERANTSITA HAUR HEZKUNTZAKO ERAIKIN BERRIA ERAIKITZEKO**  
**OBRA AMAIERARI TXOSTENA**  
**LORAZAINTZA**

---

KOKAPENA: SGED-2 AGERIALDE, Usurbil  
ESKAERA DATA: 2015eko maiatzaren 7a.  
ESKATZAILEA: UDARREGI IKASTOLA  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2012-0367  
OBRA AMAIERAKO AURREKONTUA: **1.450.185,7 euro**takoa (PEM)

---

### 1- AURREKARIAK

2014ko udaberrian, zerbitzuetako lorazain buruarekin lorazaintza lanak ikuskatu ziren, eta ontzat eman zen lorazaintza lanen amaiera, horrela jakinarazi zitzaion zerbitzu buruari.

Era berean, landaketak egiteko urte sasoi egokia ez zenez, lorazaintza lanak egin dituen Tecnatura enpresarekin, 2014ko udazken-neguan landaketa lanak egiteke geratuko zirela eta zein izango ziren zehaztu zen. 2014ko uztailak 8an horrela jakinarazi zitzaion Tecnaturari. Egiteke leudeken landaketak hurrengoak dira:

- Eraikin berriari paraleloan, *Acer freemanni* zuhaitz alineazioa, 6m-ko tartearrekin eta 16/18 Cmko zuhaitzez osatua.
- Gainontzeko eremuan, proiektuan jasota dagoen bezala, lizar, urki, astigar eta haritzek osaturiko baso mixto bat landatuko da, proiektuan dauden diametroak baino zuhaitz txikiagoak ere onartuko direlarik.

2014ko abuztuaren 5ean lorazaintza lanen ALDEKO txostena igorri zen, egiteke zeuden landaketak (*Acer freemanni* zuhaitz alineazioa eta baso mixtoaren landaketa) 2014ko neguan egiteko baldintzapean.

### 2- AZTERKETA eta ONDORIOAK

2015eko maiatzaren 7an, udal teknikariak lanen ikuskapena egin du, eta 2014ko neguan egin beharreko landaketak egoki egin direla ikusi da.



Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA



Lorazaintza lanak eginda daudela ikusita, ALDEKO txostena igotzen da lehen erabilera baimena emateko.

Usurbilen, 2015eko maiatzaren 7an.

**Udal ingurumen teknikaria Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi.**

Eskaria kontutan hartuz eta udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** UDARREGI IKASTOLA IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAK eskatu bezala, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGED-2 (Agerialde) Sistema Orokorrean, Agerialde eraikinari erantsita eraiki duen Udarregi Ikastolaren Haur Hezkuntzako eraikin berriari (Alperroburu kalea 5A) lehen erabilera baimena ematea.



Usurbilgo Udala



**BIGARRENA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko azaroaren 23an onartu eta 2012ko uztailaren 28an izenpetutako administrazio-emakidaren hitzarmeneko 6. klausularen baitan, Udalak eraikin berriaren mantenu-lanak bereganatu aurretik, udal arkitektoak bere txostenean aipatutako gabeziak konpondu beharko dira eta mantenua hasteko dagokion harrera akta izenpetu udal aparejadorearekin.

**HIRUGARRENA:** Interesatuari ohartarazten zaio Obra Berriko Eskritura Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izateko, lehen erabilerako baimena hau Notarioari aurkeztu beharko zaiola.

**LAUGARRENA:** Erabaki hau interesatuei, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

## **5.- 2015EAN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU LAGUNTZA KOPURUAK BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

### **Ikusirik**

2015eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2015. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeitau eguneko epea emanez, hau 2015eko otsailaren 26an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, guztira 15 diru-laguntza eskaera jaso ziren.

Hori horrela, 2015eko apirilaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2015. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2015eko apirilaren 21eko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2015ean Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2015-02-03)

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**



Usurbilgo Udala



**LEHENA:** 2015. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50
ACABE	633,20 €	316,60 €
ADEMG	411,58 €	205,79 €
AECC	472,00 €	236,00 €
AGIFES	728,18 €	364,09 €
AGIPASE	1.139,76 €	569,88 €
ALCER	900,00 €	450,00 €
ATECE	728,18 €	364,09 €
ATZEGI	1.234,74 €	617,37 €
